



## **TOSTA – HIZKUNTZA KUDEAKETARAKO GIDA**

### **Hizkuntza komunitateen arteko harremanetarako plana**

#### **SARRERA**

*Donostia 2016* Europako Kultur Hiriburutzaren baitan, *Tosta* proiektua abiatu da Europako hizkuntza gutxituetako zenbait eragileen artean. Kulturgintza oinarri hartuta, hizkuntza komunitateen arteko harremana eta elkar ezagutza sustatuko da. Proiektua 2016ko otsailetik irailera gauzatuko da nagusiki, gazteen formazioa jadanik burutu den arren, eta lantaldeko Euskal Herriko ordezkariak Donostia 2016 eta Euskaltzaleen Topagunea dira.

Proiektuaren legatu edo ondare nagusietako bat, hizkuntza kudeaketarako gida izango da. Hizkuntza eta kultur komunitateen arteko harremanetan zaindu litezkeen hizkuntza irizpideen proposamena jasoko du gidak, hizkuntza gutxituen babeserako eta aniztasunaren mesederako. Hizkuntza erabileraren planak, hizkuntzak erabiltzeko, konbinatzeko eta itzultzeko jarraitu litezkeen irizpideak finkatuko ditu.

Tosta nazioarteko lankidetzak proiektuak hizkuntza gutxituen erabilera lehenesten du kulturgintzaren begiratutik, eta gidaren lehen proposamena ekimenean bertan gauzatuko da. Kultura arteko proiektuetan ari diren eta hizkuntza gutxituekiko errespetuzko kudeaketaren bidez hizkuntza aniztasuna zaindu nahi duten kultur eragile guztien esku utziko da gerora.

## HELBURUA

Aipatu bezala, kultur komunitateen arteko harremanetan hizkuntza aniztasuna bermatzeko gida sortzea da helburua. Egiteko horretan, bi norabide daude:

**1.- Hizkuntza erabilera.** Kulturarteko harremanetan hizkuntzen presentzia proposamena egitea, kanpo zein barne komunikazioari dagokionez.

**2.- Hizkuntza transmisioa.** Erabileraz gain, komunitate desberdinetako eragile eta herritarrek elkarren berri izan eta elkarren hizkuntza errealitateak ezagutzeko gutxieneko irizpideak finkatzea.

## ERAGITE ESPARRUAK

Tosta proiektuaren baitan osatzen ari garen gidak hiru eragite esparru ditu:

**1.- Kanpo komunikazioa:** *pop up* jaialdiak, kontainerretako informazio puntuak, erakusketak, hedabideekin harremana eta abar.

**2.- Sortzaileak, egonaldiak eta sormen lanak:** sortzaileak eta kultur arloak zehazteko irizpideak, egonaldietan hizkuntza errealitatearen ezagutza bermatzeko saioak eta sormen lanen argitaratzea.

**3.- Barne komunikazioa:** proiektua garatzen ari diren eragileen arteko harremanak eta elkar ezagutza.

## PROIEKTUA

2015eko urritik 2016ko abendura bitartean gauzatuko da hizkuntza kudeaketarako gidaren lanketa. Lau fase ditu:

1. Ikerketa
2. Planaren diseinua
3. Gauzapena
4. Ebaluaketa eta gidaren sorrera

2015eko udazkenean, lehen fasea osatu dugu, ondoren planaren diseinurako beharrezko izango den informazioa jasoz.

## 2015 urteko memoria

Hizkuntza kudeaketarako gida lantzeko proiektua, dokumentu honetan jasotzen dena, Tostako koordinazio taldean aurkeztu genuen, Galwayn. Iraileko bilera horretan aho batez onartu zen proiektu proposamena, eta Euskaltzaleen Topaguneari lanerako oniritzia eman zioten gainontzeko kideek.

### **IKERKETA**

Gidaren proposamena egin aurretik, **ekimenen azterketa eta praktika onen bilketa** egin dugu 2015eko udazkenean. Euskal Herriko eragileen kulturarteko esperientziak zein Europan gauzatu diren praktika onak aztertu eta bildu ditugu.

Horretarako, bi galdetegi prestatu ditugu: lehena, Euskal Herriko erakundeekin aurrez aurre batzeko, eta bigarrena, Tostako Europako kideei bidaltzeko. Galdetegen helburua kasu errealak ezagutzea izan da, erakundeek kulturarteko harremanetan nola jokutzen duten, zein hizkuntza irizpide duten eta zein zailtasun izaten dituzten jakiteko. Aurrez aurreko elkarrizketetan, erakundeen funtzioen eta esperientziaren arabera moldatu dira hizketa gaiak.

Bertan aurki daiteke Europako kideei zabaldutakoa:

[https://docs.google.com/forms/d/1IYYY4GdBeroGNpqXo-oLTadxiySyya\\_h-7MOxtetrlA/viewform](https://docs.google.com/forms/d/1IYYY4GdBeroGNpqXo-oLTadxiySyya_h-7MOxtetrlA/viewform)

Urria eta azaroa bitartean, ondorengo erakundeekin eta kideekin bildu gara:

- Euskal Herriko Bertsozale Elkarte. Esti Esteibar, komunikazio arduraduna.
- Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte eta Komunikazio Zientzietako fakultatea. Gorka Orueta, Nazioarteko Harremanetarako dekanordea.
- Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua. Paul Bilbao Idazkari Nagusia.
- Garabide elkarte. Ander Bolibar eta Txema Abarrategi teknikariak.
- Soziolinguistika Klusterra. Belen Uranga.

Erakundeen hautaketa egiterakoan, irizpide nagusi hauek hartu dira kontuan: hizkuntzarekiko sentsibilizazioa eta ezagutza, eta kanpo harremanetan esperientzia eta ekimenen nolakotasuna.

Era berean, Etxepare Institutuko kideekin batzeko ahalegina egin dugu, baina orain arte ez dugu aukerarik izan. Bestalde, urtarrilean enpresa alorreko erakunde batekin elkartzen saiatuko gara.

Gauzatutako bileretan jasotako informazioaren arabera, erakunde gehienek ez dute nazioarteko harremanetan martxan jartzeko hizkuntza irizpide zehatzik, baina gai honekiko kezka nabarmena da. Unean uneko beharren eta aukeren arabera jokatzeko dute, eta baliabide tekniko zein ekonomikoek asko baldintzatze dituzte hizkuntza irizpideak. Beraz, gidaren beharra berretsi dezakegu. Bildutako praktika onak eta hedagarriak zein luzatutako gomendioak gida proposamenean txertatuko ditugu. Bilerez gain, hizkuntza irizpideei buruzko zenbait txosten jaso ditugu (EHU, Bertsozale Elkarte, Emun), eta hauek ere hartuko dira kontuan gidaren diseinuan.

Europako esperientziei dagokienez, Tostako kideek beren harremanen berri eman dute lehenago aipatutako galdetegiaren bidez.

Baina praktikaz gain, ezinbestekoa da hizkuntza, aniztasuna eta kulturarteko harremanetan aditu diren kideekin elkartu eta **gidaren oinarri teorikoa lantzea**. Euskaltzaleen Topagunearen bueltan lanean ari diren zenbait adituren laguntza izaten ari gara, eta mugimenduan aktibo egon ez arren esperientzia duten bestelako norbanakoengana ere jo dugu. Lehen harremanak egiten hasi gara eta kideen zerrenda urtarrilean finkatuko da. Hauekin, ikerketaren emaitzak aztertu eta planaren diseinurako oinarria zehaztuko dugu.

### 2015eko kronograma:

DATA	EKINTZA
Irailak 17	Proiektuaren aurkezpena koordinazio taldeari, Galwayn.
Irailak 21 - urriak 2	Galdetegiaren prestaketa.
Urriak 5 - 16	Aurrez aurreko bilerak lotu EHko eragileekin.
Urriak 20	Bilera: Euskal Herriko Bertsozale elkarte.
Urriak 23	Tostako kideei (Europa) galdetegia bidali.
Urriak 26	Bilera: Garabide.
Urriak 29	Bilera: Kontseilua.
Azaroak 4	Bilera: EHU Gizarte eta Komunikazio zientzien fakultatea.
Azaroak 24	Bilera: Soziolinguistika klusterra.
Azaroak 25	Tostako kideen erantzunak jaso.
Azaroak 26 - abenduak 18	Jasotako materialaren azterketa (elkarrizketak, irakurgaiak) eta antolaketa
Abenduak 9 - 18	Adituekin lehen kontaktua.

## **2016 urteko egitekoak**

Ikerketa fasea bukatu eta Tosta proiektuan gauzatu litekeen gidaren zirriborroa osatuko dugu 2016ko urtarrila eta otsaila bitartean. Hona hemen garatu beharreko gainontzeko faseen aurreikuspena:

### **PLANAREN DISEINUA**

Ikerketa fasea eginda, proiektuan zehar lantzeko gida proposamena egingo da, amaierako gidaren hipotesia izango dena. Ekintza plan honek oinarri teorikoa eta praktikoa izango ditu, eta aditu talde baten ekarpenekin osatuko da.

Era berean, Tosta gauzatuko duten gainontzeko eragileekin koordinatuko da plana eta ekarpenetara zabalik egongo da. Koordinazio lana, komunikazioko ardura duen Afük elkartearekin, sortzaileen egonaldiaren ardura duten elkarteekin, eta jaialdiaren ardura duen Txalap.artekin egingo da.

### **GAUZAPENA**

Gida hipotetikoa egitasmoa martxan dagoen bitartean frogatuko da; lehenik, sortzaileen egonaldietan, eta ondoren, udan gauzatuko diren jaialdietan.

Ekintza planak batez ere sortzaileen egonaldietan eta komunikazio plangintzan egingo ditu ekarpenak. Sortzaileen egonaldiari dagokionez, sortzaileen zein harrera herriaren oinarritzko ezagutzaren transmisioa landuko dugu: zer jakin behar du sortzaileak harrera egin dion kulturari buruz, eta zer utzi behar du bertan hizkuntzaren ikuspegitik? Planak horri erantzun eta ekintza proposamenak egingo ditu. Era berean, sortzaileen eta kultur arloen hautaketarako irizpideak proposatuko ditu.

Bestalde, komunikazioa aipatzean, webgune, sare sozial, hedabideekin harremanak, jaialdietako aurkezpen eta abarri buruz ari gara. Esate baterako, tokian tokiko jaialdiak osotasunean edo neurri batean tokiko hizkuntzan izatea eta gainontzeko hizkuntzen erreferentziak txertatzea aurreikusten dugu, edo sortzailearen bidezko kultura gonbidatuari leku berezia egitea.

Honekin batera, kontainerretan egongo den informazioa eta sortzaileen lanak hedatzeko hizkuntza eta itzulpen irizpideak jasoko dira gidaren lehen zirriborroan.

Tarte horretan, Tostako kideek gidaren jarraipena egiteko fitxa eredu bat izango dute, ebaluaketarako informazioa Euskaltzaleen Topagunearen esku ahalik eta modu automatizatuenean utzi ahal izateko.

## **EBALUAKETA ETA GIDAREN SORRERA**

Sortzaileen egonaldiak eta jaialdiak bukatuta, frogaldiaren ebaluaketa egingo du Topagunea, Tostako kideen esperientziak eta jarraipen fitxak kontuan hartuta.

Emaitza, ikerketa faseko adituekin konpartituko da, eta beren ekarpenekin osatuko da behin betiko hizkuntza kudeaketarako gida. Plan hori Tostako koordinazio taldean aurkeztuko da.

Gidaren aurkezpena 2016 urte bukaeran edo 2017 hasieran izango da, baina data finkatzeko dago oraindik. Izan ere, abenduan hizkuntzen bueltako ekimen asko egongo dira, eta gida ekimen horietako batean txertatzea edo Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Egunean (otsailak 21) aurkeztea aztertzen ari gara.

Nazioarteko lankidetzan ari diren erakundeen esku utziko da gida, eta irakurtzeko azkarra eta eroso izatea bilatuko da, erabilia izan dadin. Frogaldiaren txostena beste dokumentu batean jasoko da, gidaren eranskin gisa.

Euskaltzaleen Topagunea

Durango, 2015eko abenduaren 22an